

UNIBERTSITATEA

Hain zuzen ere, iaz unibertsitateak berak onartu zuen hizkuntza plangintzaren aurkakoa da gobernuaren asmoa

EUSKARAREN LEGEA

Zenbait iturrik adierazi dute gobernuak lege berria onartzeko Euskararen Legea aldatu beharko dela

EUSKALGINTZA

Pegenautek gutxietsi du euskaltzaleen artean sortutako erreakzioa, eta «garai gogorrak» ezagutu dituela adierazi du

DATUAK

Ikasleen %18 gai dira euskaraz ikasteko

IKEI enpresak 1999an egin dako ikerketaren arabera, NUPeko ikasleen %18 gai dira euskaraz ikasteko, eta zazpi titulaziotan euskaraz ondo dakitenak %20 ere badira. Matrikulazio garaian egindako inkestaren arabera, gainera, ikasleen %24 prest daude euskaraz ikasteko. Halaber, egun berrogei inguru dira irakasle euskaldunak.

Gero, zirriborroa banatu zen unibertsitateko ikastegi, sail eta erakundearen artean, eta erantzuna berehalakoa izan zen: irakasleak, ikasleak zein langileak, denak agertu ziren zirriborroaren kontra. Ordura arteko erantzunik handiena izan zen.

«Euskaraz ikasteko eskubideak zantpatzea»

Hasteko, hizkuntza normalizazioarako Nafarroan indarrean dagoen legedia —Foruen Hobekuntza eta Euskararen Legea— hausten zuen zirriborroak, sinatzaileen arabera; gizar-tean dagoen eskaerari muzin egiten zion; trabatu egiten zuen irakasle elebidunen kontratazioa —lanpostuak ezin dira erabaki ikasgai hautazko libreen eskaeraren arabera—, eta, azkenik, ikasle euskaldunek euskaraz ikasteko eskubideak urratzea zekarren asmoa.

Erreakzioaren ondorioz, batzordeak atzera egin eta adarreko ikasgaiak ziurtatzeko plana hitzartu zuen. Gobernu Batzordearen oniritziaren zain gelditu zen proiektua, baina Gobernu Batzordeak ez zuen inoiz aztertu gaia.

Atzo Pedro Pegenautek adierazi zuenez, Gobernua prestatzen ari den lege proiektuaren bidez «NUPen izango den hizkuntza errealitateak bat egingo du gizartean dagoenarekin», eta, nahiz eta onartu zuzenean lanean ari direla Errektoretzarekin, azpimarratu zuen plangintza zehatzak NUPek berak egin beharko dituela.

«Unibertsitatearen iritzia errektoreak du», esan zuen Pegenautek, «eta berak eramango ditu erabakiak erakunde erabakitzaileetara». Gainera, nabarmendu zuen aurrekontu hitzarmenak zeresana baduela aferarekin.

«Elkar maitatu behar dugu»

PEGENAUTEREN ASMOAK. Diru laguntzak, errotulazioan aldaketak, erakundeekiko harremanak eta hizkuntza komunitatearen inguruko gogoetak.

A.B. | IRUÑEA

Gidoian ez egon arren, Pedro Pegenautek gogo onez erantzun zien atzo kazetarien galderei, prentsaurrekoan egin zuen aurreneko agerraldian. Banan-banan, zuzendari nagusiak jorratu egin zuen hizkuntza politikaren inguruan hainbat gai, eta nabarmendu zuen bere gobernuak dituen oinarri ideologikoen arabera egingo duela lana. «Nafarrak ez gara inozoak», esan zuen Nafarroa beste euskal lurraldeekin batzen duen hizkuntzaren inguruan galdetu zitzaionean: «Eta kalte handia ekartzen dio euskarari horrelako gaiak ateratzen dituenak».

Ironiko ere aritu zen tartetan. «Nik asmo onak ditut beti, eta elkar maitatu behar dugu». Hona jorratutako hainbat gai, eta haien inguruan zuzendari nagusiak emandako azalpenak.

EUSKO JAURLARITZAREKIKO HARREMANAK. Galdera egin zitzaionean ea bere zuzendaritza nagusiak harremanetan jarraituko duen Eusko Jaurlaritzarekin egitasmo bateratuak bultzatzeko, esaterako Hizkuntza Atlas, zera adierazi zuen Pedro Pegenautek. «Guk aurrera eramango ditugu Nafarroarekin zerikusia duten proiektu guztiak. Ez ditugu finantzatu, ordea, beste izendapenen barruan sartuta dauden egitasmoak. Guk daukagun begirune bera eskatzen dugu guretzat».


HIZKUNTZA KOMUNITATEA. Galdetu zitzaion ea beste lurraldeekin hizkuntza bera izateak ez ote zuen baldintzatzen zenbait egitasmo aurrera ateratzeko, eta halaxe erantzun zuen. «Oso esker txarrekoa da hori pentsatzen duena, eta kalte handiak ekartzen ahal dizkio hizkuntzari. Hizkuntza bera izateagatik ez dira proiektu berak aurrera atera behar. Bestela, gaztelaniarekin gauza bera egin beharko genuke, hau da, lotu gene-

zake Miami eta Euskal Autonomia Erkidegoa, hor biztanle gehienak erdaldunak baitira. Beraz, inork ez dezala Nafarroaz hitz egin norabide horretan, nafarrak ez baikara inozoak».

KOMUNIKABIDEEI DIRU LAGUNTZAK. Nafarroako Gobernuak aurtan inoiz baino gehiago atzeratu ditu urtero euskarazko komunikabideei ematen zaizkien diru laguntzak. Beste urteetan otsailerako prest zeuden, baina aurtan soilik euskara sustatu eta garatzeko kultur jarduerak eta euskararen irakaskuntza sustatzen duten entitate pribatueen diru laguntzak emateko deialdiak argitaratu dira Nafarroako Aldizkari Ofizialean. Pegenautek, horri buruz galdetuta, nabarmendu zuen diru laguntza bera izango duela deialdiak, baina aldaketa nabarmenak izango direla bertan. «Komunikabideen diru laguntzen deialdia oso ondo doa, eta atzeratu bada, hori izan da txosten juridikoak eskatu behar izan direlako, eta administrazioan, maiz, gauzak mantso doazelako. Beraz, laster argitaratuko den deialdiaren inguruan, esan dezakegu ez duela inolako mugarik izango, diru laguntzak euskarazko komunikabide nafarrentzat izango baitira, hau da, Nafarroan helbideratuta dauden komunikabideentzat. Diru laguntza, oro har, 49,5 milioi pezetakoa izango da, eta, horren bidez, Euskararen Legeak dioena bete nahi dugu, estuki bete ere. Beste inongo helbururik ez dugu ezta aztertu ere egin, jakina».

DIRU LAGUNTZAK. Nahiz eta azken urteetan hizkuntza politikarako aurrekontuak izoztu egin diren—aurrekontu orokorraren %0,34 da 1998az geroztik—, Pedro Pegenautek azpimarratu zuen aurtan 16 milioi pezeta gehiago bideratuko dituela bere zuzendaritzak. Hala ere, adierazi zuenez, aldaketa garrantzitsua egin zaio diru laguntzak banatzeko aurreko

ESANAK



PEDRO PEGENAUTE
(Hizkuntza Politikarako zuzendaria)

«Nafarroarekin zerikusia duten proiektuak finantzatuko ditugu, soil-soilik»

«Inongo erakundek ez du gurekin zuen harremana hautsi gu hemen gaudenez geroztik»

«Euskaltzaindiarekin eta Jaurlaritzarekin ditugun harremanak onak direla esan dezakegu»

«Gurea ez zen izan errotulazio elebiduna aldatzen hasi zen lehen departamentua»

«Erreakzioa askoz gogorrakoa izan zen 1986an Euskararen Legea onartu genuenean»

sistemari. «Lehen diru laguntza zen, baina orain akordio edo hitzarmenaren bidez banatu nahi dugu dirua, eta hori garrantzitsua da. Baina esan behar dugu, gainera, inongo erakundek ez duela galdu Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusiarekin zuen hitzarmenak».

UDAKO EUSKAL UNIBERTSITATEA. Galdetu zitzaionean Udako Euskal Unibertsitatearekin zer gertatu den, zera erantzun zuen zuzendari nagusiak. «Udako Euskal Unibertsitateari inoiz ez zaio ezetz eman, baina esan zaio hau Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusia dela, eta unibertsitateetarako zuzendaritzarekin negoziatu behar zela. Horra jo zuzenean neronek esan nion [Xabier] Isasiri haiek unibertsitatea baziren ekartzeko dokumentazioa, agiriak. Ez zuten ekarri, eta guk ez dugu finantzatu unibertsitatea ez den ezer».

EUSKALTZAINDIA. Pegenautek hitzetan, Hizkuntzaren Akademiarekin harremanak «onak» dituzte. Beste horrenbeste esan zuen Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzarekin dituzten harremanen inguruan.

ERROTULAZIOA. Pedro Pegenautek ukatu egin zuen Hizkuntza Politikaren egoitzatik kartelak kentzea justifikaziorik gabeko keinurik dela, nahiz eta onartu zuen horrelako gai sinbolikoetan erraza dela gaia baliatzea. «Ekainean hartu nuen zuzendaritza nagusiaren kargua, baina ni hona urtarri-lean etorri nintzen. Orduan ez zen Hizkuntza Politika soilik, baina baita Unibertsitateetarako zuzendaritza nagusia ere, eta kartelak aldatu behar izan genituen. Eta [administrazioan euskararen erabilera arautzeko] dekretua hor dago. Baina dekretua irakurri beharra dago, jakina. Hori bai, ez da egia hemen inon baino lehenago aldatu dela errotulazio elebiduna».

EUSKALTZALEEN ERREAKZIOA. Pegenautek ukatu zuen, karguan daraman hamaika hilabete hauetan, kontrako iritzi oso nabaria sumatu duela euskaltzaleen aldetik. «Askoz gogorrakoa izan zen Euskararen Legea onartzekotan izan genuen 1986ko urte hartan. Orduan egunero manifestazioak izaten ziren Iruñean», esan zuen.